

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2025)

euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
ikerketa-lanak saritzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Euskaltzaindiak, Mintzola egitasmoaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, euskaraz egiten den ahozko jardunari (euskarazko hizkerari) buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du.

Eguneroko hizkeraren antolaketa formala maila txikienetik hasita, formaltasun mailan gora doazke hizkera antolatua (hitzaldiak, klaseak, albistegiak...), eta ahozko jardun eraikiaren adar berezi bat osatzen dute kulturgintza-adierazpideak osatzen dituzten ahozko tradizioak.

Euskaltzaindiak erabaki du eguneroko hizkeraren galdegaia erdigunean jartzea, ahozkotasunari helduta, maila desberdineko ikerketa jardunak sortuz. Batetik, **abiapuntuko ikerketak**: objektua bera kokatzea, eguneroko hizkeraren ezaugarriak aletzea, euskal komunitateak arlo horretan duen egoera diagnostikatzea. Beste batzuk, **ikerketa aplikatuagoak**: eguneroko hizkeraren hobekuntza eragiteko tresnak hezkuntza, hedabideetan eta bestelako bideetan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hain zuzen bide horretan laguntzea eta, unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, ondorengo zazpi eremuak oinarrian direla, **euskaraz egiten den ahozko jarduna** ikergai gisa sustatzea da deialdi honen helburua. Ikergaiak:

1. Eguneroko hizkera informaleko ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun-baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletatik sustatzeko bideak eta formulak.
6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Zazpi eremu horiek lehentasunezko zat definitu ditu Euskaltzaindiak, baina, oro har, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko ikerlanak ere saritu ahal izango dira.

Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu ikerlan-proiektuen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan, sinesten dugulako unibertsitate-irakasle batek bermaturiko proiektuak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan, ikerketa-lan monografikoen proiektuak onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuz. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

PROZEDURA

- 2025ean, **3.000 euro gordinoko bi dirulaguntza** esleituko dira.
- Soilik argitaratu gabeko lanak eta izaera propioa dutenak finantzatu ahal izango dira.
- Lanak banaka edo talde txikitik aurkeztu daitezke.
- Dirulaguntza jasotzeko, ezinbestekoa da unibertsitate-ikasketetan tituluduna izatea (baldintza hori egiaztatu beharko da diru-laguntza kobratzeko unean).
- Aditu edota doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak balioetsiko ditu aurkezturiko curriculumak eta ikerketa-proiektuak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienezkoan doan zerrenda egingo du. Puntuazio handiena lortu eta dirulaguntza eskuratzea merezi duten hautagaien izenak proposatuko ditu, bai eta horren ordezkoren izenak, uko egiteak edo beste edozein gertaera konpontzeko. Batzordeak nahi duen guztiei edo batzuei elkarrizketa pertsonalak egiteko proposatu ahalko die.
- Batzordeak laguntzak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiak edo proiektuak askietsi ezean, 2025ean dirulaguntzarik ez ematea delibera dezake.
- Proiektuaren arabera eginiko ikerketa-lana ezarritako epea baino lehen entregatu beharko da eta batzorde zientifiko batek onatzen eman beharko du.
- Saritutako proiektuei dagokien ikerketa lanak gauzatutakoan, Euskaltzaindiak ikerketa lan horiek argitaratzeko eskubidea edukiko du, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdi honetara aurkeztutako lanak Azkue Biblioteka eta Artxiboan gordeko dira. Aldiz, lanak argitaratu gabeak diren artean, haiek kontsultatu ahal izateko lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da.
- Egitasmo sarituaren egileak lanari buruzko artikulua bat (gutxienez 30.000 eta gehienez 60.000 karaktere) Euskaltzaindiaren *Euskera ikerketa aldizkarian* idazteko konpromisoa hartuko du.
- Diru-laguntza jasotzeak, prestakuntzako helburuz egiten denez, ez du inolako kontratu edo estatutupeko harremanik sortzen Euskaltzaindiarekin.

- Deialdira proiektu bat aurkeztea aski da, proiektuaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeko.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa– betez, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (‘‘DBEO’’) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (‘‘DPBEDBLO’’) aipamen berezia eginez, deialdia honetara aurkezten diren pertsonen datuak Euskaltzaindiaren tratamendu-sistemetan jasoko dira, bera baita tratamenduaren erantzulea.

ESKAERAK

- Eskeraek eta behean ageri den dokumentazio guztia PDF formatuan eta e-postaz bidali behar da ondoko helbide elektronikora: mintzola@euskaltzaindia.eus.

Eskeraek deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia betez aurkeztuko dira.

Eskeraekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- a) NANaren fotokopia.
- b) Deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia.
- c) Eskatzailearen CVa eta merezimenduen egiaztagiriak.
- d) Titulu eta ziurtagiri akademiko pertsonala, irakasgai guztien kalifikazioak eta deialdiak adierazita.
- e) Unibertsitate-irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa-lanaren zuzendari izango dela esanez.
- f) Ikerketa-proiektuan ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Proiektuaren helburuak eta interesa.
- Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia.
- Proiektuaren hurbilpen-maila lehenetsitako zazpi eremuetara.
- Proiektuaren garapen-maila.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa.
- Euskarazko proiektuak lehenetsiko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskerak eta lanen egitasmoak aurkezteko epea: **2025eko maiatzaren 31ra arte.**
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2025eko uztailaren 11, beranduenez.
- Proiektuaren araberrako ikerketa-lana eginda entregatzeko mugaeguna: **2026ko otsailaren 27a.**
- Ordainketak: sarituen zerrendak argitaratutakoan, eta betiere, 2025eko uztailaren 31 baino lehen.
- Euskaltzaindiaren atarian (www.euskaltzaindia.eus/mintzola) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko alderdiei buruzko galderak honako helbide elektroniko honetara bidali behar dira: mintzola@euskaltzaindia.eus.